

# DURANGOKO AZOKA

## 1965-2015

JOSEBA **SARRIONANDIA** – JESUS MARI **ARRUABARRENA** – TXELU **ANGOITIA**



# DURANGOKO AZOKA

## 1965-2015


JOSEBA SARRIONANDIA

JESUS MARI ARRUABARRENA

TXELU ANGOITIA



**GEREDIAGA ELKARTEA**

Liburu hau 2015eko azaroan argitaratu zen
Durangoko Azokaren 50. urteurrenaren karietara,
erakunde hauen laguntzarekin:

BBK FUNDAZIOA
EUSKO JAURLARITZA
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA
DURANGOKO UDALA

**Gerediaga Elkartea. 2015**

Testuak: "MUNDUTIK AZOKARA", Joseba Sarrionandia.
"AZOKATIK MUNDURA", Jesus Mari Arruabarrena.

Koordinazioa eta argazkiak: Txelu Angoitia.

Erredakzio kontseilua: Asun Elorriaga, Nerea Mujika, Aitziber Atorrasagasti.

Itzulpenak: Joseba Sarrionandia eta Luis Berrizbeitia.

Edizio lana: Luis Berrizbeitia.

Lan taldea: Esther Soto, "Epi" Garcia, Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga,
Jose Mari Uriarte, Maialen Odriozola, Julen Nafarrate, Libe Mimenza.

Argazki historikoak: Gerediagako dokumentategia, Pablo Garitaonandia, Miguel Angel Astiz,
Foto SOL, Jose Mari Uriarte, DEIA eta El Correoko artxiboak.

Diseinua eta maketazioa: Idoia Retegi (Biko komunikazioa).
Azaleko irudia: Jose Luis Zumeta
Inprimategia: Gertu Koop.
ISBN: 978-84-943197-3-0
Lege gordailua: BI-1651-2015

© Edizioarena: **Gerediaga Elkartea**
Testua eta argazkiak, egileenak.

**Gerediaga Elkartea.**
Larrasoloeta 3 48200 Durango.
gerediaga@durangokoazoka.eus
www.gerediaga.eus
www.durangokoazoka.eus

Gerediagak eskerrak ematen dizkie liburuaren egileei eta errespetatzen ditu beren iritziak, baina denekin ados egon gabe nahitaez.

# Durangotik mundura

**Mundutik azokara**
JOSEBA SARRIONANDIA
6

**Azokatik mundura**
JESUS MARI ARRUABARRENA

**Argazkiak**
TXELU ANGOITIA
70

**Begirada Kronologikoa**
KARTELAK. 1965-2015
173

**Versión en castellano**
193

Bernart Etxepare Durangoko Azokara etorriko balitz, poztu egingo litzateke kultura-plaza horretan sartzean eta ikustean bertara bilduta hainbeste kulturgile, kulturzale, ekintzaile, artista eta irakurle, denak ere euskal kulturaren baratza gogotik lantzen eta fruitu ederrenak hartatik jasotzen.

50 urte igaro dira Geregiagako kideek euskal kultura argitara ateratzeko Azoka bat antolatzea erabaki zutenetik, frankismo betean. Bost hamarkada igaro dira ordutik hona, eta Durangoko Azoka ezin da ulertu aintzat hartu gabe mende erdi horretan euskal kulturak eta gizarteak izan duen bilakaera, ez eta euskal kultura eta gizartea ere kontuan hartu gabe Durangoko Azokak eman dion guztia. 50 urte horiek egin gaituzte gu, bide luze horretako ikasgaiak metaka pilaturik, eta 50 urte horiek egin ditugu guk, lanez eta ilusioz gainezka.

Liburu honetan daukazu bilduta urte horien guztien kontakizuna: erbesteko begiekin egina dizu Joseba Sarrionandiak, Azokaren sortzaile eta antolatzaileen ahotsez Jesus Mari Arruabarrenak, eta argazki bidez Txelu Angoitiak.

50 urte ez da marka makala, baina, orain, datozen urteetako historia idatzi nahi dugu.

Duela mende erdi gerediagatarrek zehazki, eta euskal kultur mugimenduek oro har, izan zuten argitasuna, erabakimena eta kemena beharko ditugu guk datozen urteetako eginbeharrei aurre egiteko. Hauek dira bide horretan aurkituko ditugun erronkak:

- Euskal Kulturaren ikusgarritasuna bermatzea Euskal Herrian bezala munduan ere.
- Belaunaldi euskaldunberrien parte-hartzea bultzatzea euskarazko sorkuntzan, aisialdian eta kulturgintzan.
- Etengabe lantzea euskal sormena, ekoizpena, kontsumoa eta gogoeta.
- Herri-ekimenak, erakundeek, industriak eta hedabideek euren estrategiak elkarrekin partekaraztea.
- Euskal herritarrei munduari begiratzeko bizipenak eta kultur nortasuna ematea.

Helburu horiek jomugan, Durangoko Azokaren antolakuntzan dihardugun eragile guztiok ahaleginak egingo ditugu kultur eta gizarte-eragile guztien lana bultzatzen, egungo Azoka eredua aberasten eta, hartara, Bernart zaharraren plaza arnasberritu eta iraunarazten, gure baratzak jarrai dezan gutxienez beste 50 urtez euskal jendearen kultur-gosea bere fruitu gozoez berdintzen.

**Nerea Mujika Ulazia**
Gerediaga Elkarteko Presidentea

# Mundutik azokara

JOSEBA **SARRIONANDIA**